

IRUDI ETA MEZUEN KODEA

HEGOALDEARI DAGOKIONEZ



Euskadiko GGKEen Koordinakundeak egin du dokumentu hau eta Hirugarren Munduari buruzko Mezu, Irudi eta Portaeren Kodea hartu du oinarritzat, zeina Gobernuz Kanpoko Erakundeen Bitartekaritza Batzordearen Batzar Orokorrak onetsi baitzuen Europako Erkidegoan 1989an. Garapen global baterako prozesuan inplikaturiko Europako Gobernuz Kanpoko Erakunde, eragile eta kontraparteek idatzi dute dokumentu hau.

Dokumentuaren helburu behinena da portaera kodeari buruzko eztabaida piztea eta hala gobernuz kanpoko erakundeak, nola bestelako erakunde, instituzio eta elkarteak animatzea beren komunikazio prozesuetan plazaratutako eduki, ideia, proposamen eta mezuak azter ditzaten.

Kodea erronka izan beharko litzateke munduko errealitatearen ikuspegi kritiko eta solidarioagoa zabaldu nahi duten GGKE eta taldeentzat, baina baita eguneroko lanerako gida ere.

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez



Atarikoa

Azken urteotan GGKEek salaketa ugari egin badute ere, europarrok informazio partzial eta okerrekoa jaso dugu sarritan, eta horrek ez digu laguntzen gizateriaren arazo larrien ikuspegi kritiko bat eraikitzen. Herrialde txirotuen emergentzia egoerari buruzko irudi lazgarri gehiegi dago eta, jakina, ez dituzte jarrera solidario eta konprometitua bultzatzen. Larrialdi egoeretakoa deialdiek karitatezko jarrerak sustatzen dituzte onenean ere, gainera, herrialde txirotuei, beren arazo eta konponbideei eta be-rauekiko harremani buruz ditugun

idea estereotipatuak indartzen dituzte. Irudiaren karga emozionalaren, hilarri-hizkeradun publizitate lemen erabileraren eta horiek behin eta berriro errepikatzearen bitartez, zinema, telebista eta egunkariak egoki-egokiak bilakatzen dira jendearen arreta erakartzeko. Dena dela, komunikazio mota horrek, funtsezkoena aldea batera uzteko arriskua dago, gauzen alderdi positiboa ezkutatuz ikusgarritasuna lortzeko asmoz.

Faktore erabakigarria bilakatu da hau Europaren eta Hegoalderaren

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez

arteko etorkizuneko harremanean, izan ere, zenbait irudi edo mezuk (komunikabideek edo GGKEek zabalduak) kaltetu egin dezakete garapenerako kooperazio erakundeen lana. Herrialde txiroetuekin, etorkinekin eta, oro har, bazterturik dauden taldeekin bideratu dugun lankidetzaren eta elkartasuna, GGKEon sentsibilizazio lanaren helburu izan dena alegia, publikoari zuzendutako irudi eta mezu horietan oinarritzen da.

Horrela beraz, kode bat finkatu behar dugu, irudi eta mezuak eta, beraz, gure komunikazio proposamen guztiak arautuko dituen.

Sarrera

Garapenerako Hezkuntzaren Helburuak

Garapenerako Hezkuntzari buruz hainbat interpretazio egiten da eta, sarritan, oso anbiguoak izaten dira, izan ere, Garapenerako Hezkuntzak hainbat arlo hartzen ditu. Kontzeptu honi buruzko mugak, batetik garapenerari buruz daukagun pertzepzioak eta, bestetik, gizarte aldaketei buruz egiten ditugun analisisiek eta gure konbikzio ideologiko eta filosofikoei zehazten dituzte.

Kontua ez da hemen izendapen hori erabat zehaztuko duen definizioa ematea, baina komenigarria da Garapenerako Hezkuntzaren funtsezkoa helburuak garbi edukitzea, izan ere, kontuan izan behar dira beti jendeari zuzendutako mezu eta irudiak zabaltzean. Hona hemen, bada, Garapenerako Hezkuntzaren helburu nagusiak:

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez

- ▶ Garapenaren arazoari buruzko kontzientzioazioa bultzatzea, arrazoiak eta konponbideak eta horien artean dagoen elkardependentzia ulertzea, horrela, hobeto ezagutzeko elkar.
- ▶ Eztabaidan parte hartzeko borondatea areagotzea, benetako lankidetzara politiko, ekonomikoa eta kulturalaren estrategiarik eusteko.
- ▶ Herrien arteko elkartasuna bultzatzea ahalik eta bazkide gehienekin, elkarren arteko ezagutza hobearen bidez.
- ▶ GGKEen, estatuen eta EBren konpromisoa sendotzea, aldaketa estrukturalak lortzeko herri baztertuen alde.

Helburu horiek lortze aldera, garapeneko erakundeek euren estatuetan txertatu beharko lituzkete

Garapenerako Hezkuntzari datzekion xede, eduki eta prozedurak, transformazio sozialaren aldeko konpromisoaren adierazgarri.

Jokabide kode honen helburu nagusiak

Kode hau Europako GGKEentzako erronka da, baita gida bat ere aldi berean. Honetan dabiltzan eragile eta bazkideek herri txirotuei dago-kienez egiten dutena aztertzea bilatzen du kode honek, irudi murriztai-leak kenduz, hau da, miseria egoerak edo egoera idilikoak azalduz errealitatearen zati bat baino erakusten ez duten irudiak kenduz.

Batez ere, dirua lortzeko konprometituta dauden GGKEak beren ideiak hobeto egokitzea gonbidatu nahi ditu.

Erreferentziako baliabide bat da, GGKEei elkarre mugimenduaren

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez

solidaritatea, koherentzia eta indarra sendotzen laguntzen diena.

GGKEak eta dirua lortzea

Dirua lortzeko sistema ezberdinak dituzte Iparraldeko GGKEek. Besteak beste, hor daude urteroko kanpainak, kanpaina tematikoak eta premiazko ekintzak. Erabiltzen diren baliabideei dagokienez, esate baterako aipatzekoak dira dagoeneko motibatuta dagoen jendeari informazioa bidaltzea, kartelak eta materialen salmenta (liburuak, zorion txartelak, agiriak, artisautza, etab.).

Hainbat mezu eta irudi GGKEek zabaltzen dituzte. Baina dirua bartzeko kanpainen publizitatea erakunde bakoitzak daukan kontzeptu pertsonalari dago lotuta, eta kontzeptu horrek zehazten ditu jendea-ri zabaltzen zaizkion irudi motak.

GGKE bakoitzak erabaki behar du zein den sistematik onena, eta bakoitzak egiaztatu beharko du, bai aplikaturiko metodoak eta bai berak zein bere kide edo erakunde babesleek erabilitako mezuek ez dutela menpekotasun sentsaziorik proiektatzen.

GGKEek saihestu egin behar dituzte mezu hauek:

- ▶ Egoeren aniztasuna ezkutatu eta orokortu egiten duten irudiak.
- ▶ Irudi idilikoak (errealitatea den bezalako erakusten ez dutenak, nahiz eta beti ona ez izan) edo “abentura” irudiak edo exotikoak.
- ▶ Irudi akusatzaileak.
- ▶ Iparraldearen nagusitasuna transmititzen duten irudiak.

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez

- ▶ Egoera modu miserable edo patetikoan erakusten duten irudiak.

Jokabide kodea

Guk, Europako Elkarteko Estatu kideetan kokatutako GGKEok, irabazi asmorik gabeko elkarte humanitario desberdinen ordezkari gisa, Hegoaldean garapen prozesua sustatzeko eta Iparraldeko garapen desagokia konpontzeko ekintzekin konprometituta gaudelarik, onartu egiten dugu jokabide kode hau, izan ere, gida bat izatea nahi dugu eguneroko lanean, Iparraldeko herrialdeek munduko pobreei buruz proiektatzen dutena hobetzeko asmoz.

Kode honen bitartez hauxe lortu nahi da Europako GGKEetatik

- ▶ Egiten duten lanari buruzko kontzientzia aztertzea eta berriro ere zalantzan jartzea beren metodoak, atzean utziz “txoke emozionala” eta “unean-uneke laguntza” kontzeptuak, eta jendearentzat egokia den pedagogia garatzeko.
- ▶ Euren artean eta gizarteko beste indar batzuekin batzea, informazioaren elkartrukea hobetzea.
- ▶ Premiazko deien mezua garatzea, Garapenerako Hezkuntza lana ezerezean gera ez dadin (lan horrek epe luzerako ahaleginak eskatzen ditu).
- ▶ Langileen, informazio materiala prestatzeko arduradunen, prestakuntza egokia ziurtatzea,

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez

eta lagun horiei aholkua emateko adituak bilatzea.

- ▶ Batez ere, protagonistei –hots, Hegoaldeko pertsona eta erakundeei– ahotsa ematea mezuak eta irudiak prestatzean.

Nazioarteko garapenerako kooperazioaren barruan (elkartasunean eta baliabideen partekatzean oinarritzen da), nahitaezko baldintza da Hegoaldeko bazkideak parte hartzea iritzi publikoa sentsibilizatzeko ekintzetan, mezuak eta irudiak behar bezala zabaltzeko. Une honetan, hain zuzen ere, informazio eta ezagutzaren gizartea sustatzeaz dihardugunean, ezin dugu gizateariaren arazo larriez hitz egin edo beste herrialde batzuei buruzko irudirik proiektatu Hegoalde eta Iparraldeko eragileei iritzia eskatu gabe. Egoera oso korapilatsua bada ere, baztertutako taldeen komunikazio gaitasuna areagotzen ahale-

gindu beharko ginateke eskura ditugun baliabideak aprobetxatuz. Ildo horretatik, teknologia berrietarako sarbidea eskaini beharko genieke eta, batez ere, interneten erabilera bultzatu, lankidetzako tresna eta sare solidario bilaka dadin.

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez

GGKEek honetarako egin behar dute lan:

- ▶ Herri txirotuei Iparraldeko komunikabide handietara heltzeko eskubidea bermatzea.
- ▶ Gure herrialdeetan Hegoaldeko kultur produktuen zikulazioa bermatzeko, merkatuaren filtroetatik kanpo.
- ▶ Kultur produkzioarako gaitasun lokala eta autonomia bultzatzeko.
- ▶ Hegoalde eta Iparraldeko pertsona eta kolektiboen komunikazio zuzena perfektionatzeko: hegoaldeko pertsoneri, hala gonbidatuei nola gure inguruan bizi direnei, sarriago eta argiago eskatu euren ezagutza eta esperientzien berri emateko.

Benetako elkartasuna ezin da norabide bakarrean gauzatu, hau da, no-

rabide bikoitzekoa eta horizontala behar du izan. Ez al da handinahikoa Hegoaldeko arazoak bakarrik konpondu gura izatea, gure gizarteak berak orokorrean garapen desegokia jasaten duenean?

Gomendioak

Goian adierazitako irizpideen argitan, Europako GKEek Garapenerako Hezkuntzaren arloan duten materiala eta zabaldutako mezuen edukia berrikusteko konpromisoa hartzen dute. Hain zuzen ere, orokorrean, ondoko hauek hobeto ulertarazteko ahalegina egingo dute:

- ▶ Herrialde txirotuen eta baztertutako taldeen –planetaren iparralde eta hegoaldean– errealitate eta konplexutasunak beren testuinguru historikoan.

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez

- ▶ Giza Garapenerako oztopo diren eragile zehatzak.
- ▶ Herrialde hauen ezaugarri den egoeren aniztasuna.
- ▶ Norberak egindako ahaleginak.
- ▶ Eta egindako aurrerapenak.

Arau praktikoak

1. Irudi katastrofista edo idilikoak saihestea, izan ere, kontzientzia garbi izatera mugatutako karitatea bultzatzen dute, gogoeta bultzatu beharrean.
2. Pertsona guztiak gizaki gisa aurkeztu behar dira eta pertsonen inguru sozialari, kulturalari eta ekonomikoari buruzko informazioak eman egin behar dira, haien kultur nortasuna eta duin-

tasuna bermatzeko. Kultura garapenerako baliabide gisa aurkeztu behar da, herrien ondare izan behar du eta Giza Eskubideei dagokien babesa eskaini behar zaio.

3. Interesatutako pertsonen leku-kotzei lehenetasuna eman behar zaie hirugarren batzuen interpretazioen gainetik.
4. Nabarmendu egin behar da pertsonak beren buruen ardura hartzeko duten gaitasuna.
5. Mezua egin behar da jendearengan globalizazio eta orokortze ideia saihesteko moduan.
6. Garapenerako barne eta kanpo oztopoak argi eta garbi agertu behar dira.
7. Elkarren dependentzia eta erantzukidetasuna ideiak azpimarratu egin behar garapen desegokian.

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez

8. Miseriaren arrazoiak (politikoak, estrukturalak, naturalak) mezuan agertu behar dira, jendeak injustiziaren mekanismoak uler ditzan eta aldaketa ekintzetan eta transformazio sozialerako ekimenetan inplika dadin. Ildo beretik, botere eta interesen arazoak azpimarratu behar dira eta, era berean, zapalkuntzarako baliabideak eta bidegabekeriak salatu.
9. Mezuan era guztietako diskriminazioak saihestu beharko dira (etnikoa, sexuala, kulturala, erlijiosoa, sozio-ekonomikoa...).
10. Hegoaldeko gure kideak deskribatzen dira menpeko, pobre eta botererik gabeko pertsona gisa, eta hori areagotu egiten da emakumeen kasuan, izan ere, sarriago agertzen dira dependentziadun biktima gisa, edo txarrago dena, ez dira batere agertzen. Garapenerako Hezkuntzako materialaren hobekuntzan kontuan hartu beharko da, nahitaez, emakumeen irudiaren aldaketa. Ildo horretatik, premia-premiazkoa da Garapenerako Hezkuntzan genero ikuspegia txertatzea.
11. Hegoaldeko kideei iritzia eskatu beharko zaie mezuak egitean.
12. GGKE batek, diru-laguntzak lortzeko prozesu batean, beste bazkide batzuen lankidetzabatu (erakundeak edo enpresa pribatuak), zaindu egin beharko du kode honetan agertzen diren gomendioak errespetatu egiten direla oso-osoan. Komenigarria izango litzateke kodea aipatzea GGKEen eta bazkideen artean egindako babes kontratuetan.

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez

Ondorioa

Eguneroko informazioa partziala da Hegoaldeaz diharduenean, eta bertako herritarrak euren patu aldaezinaren biktima gisa aurkezten ditu, nahiz eta protagonista diren justiziaren alde bultzatu dituzten borroketan. Komenigarria da atzean uztea fatalismo hau eta informazio errealago eta osoago ematea, horrela, zibilizazio guztiek berez duten balioaz, gure sistemen mugez eta justizia, bakea eta ingurumena errespetatuko duen

garapen mota baten beharrianaz jabetzeko. Horrek zehaztu egiten du GGKEen lana, izan ere, egiazko informazioa eman behar dute, objektiboa, eta aurkeztutako pertsonen giza balioa ez ezik, informazioaren helburu den publikoaren intelgentzia ere errespetatuko duena.

Euskadiko GGKEen Koordinakundea
2005eko apirila

Irudi eta mezuen kodea hegoaldeari dagokionez